

FUNTSEZKO JARDUERAK

Funtsezko jarduerak enpresa bat aurrera eramateko egin beharreko ekintzak dira. Starring enpresaren kasuan, hainbat jarduera egin behar ditugu produktua bezeroaren eskutara iritsi baino lehen.

Enpresaren lehenengo pausua produktua hasieratik sortzea da, gure produktua ez zelako jada existitzen, ezta produktu antzekorik ere. Makinaren diseinu eta funtzionamendua hasieratik sortu behar da. Horretarako giza baliabideak erabiliko genituzke. Zientzialari kualifikatuak eta ingeniariak batez ere, sistema elektronikoa sortu eta produktua homologatzeko. Haiek gure produktuak ondo funtzionatzen duela ziurtatuko dute, froga ezberdinak eginez, bukaerako makina aurkitu arte.

Funtzionamendua eta diseinua sortuta dagoen momentuan zenbait hornitzaileei gure produktuaren zati ezberdinen eskaera egingo zaie, hau da, makinaren zati garrantzitsuenak enpresatik kanpo sortuko dira. Horrela kostuak baxuagoak izatea lortuko da. Gainera azpikontratatuak enpresak produktuaren zati horretan espezializatuak daude. Gero enpresak zati guztiak jaso eta bertan bukaerako produktuaren muntaketa egingo du. Gainera bertan ere egingo dira paketeak, produktua denda eta etxetara bidaltzeko. Starring enpresaren produktuak pertsonalizatzeko aukera ere badauka. Gauza txikiak dira pertsonalizatu daitezkeenak, horregatik hau ere enpresak bere fabriketan egingo du, prozesuaren bukaeran, paketeak egin baina lehenago.

Behin produktua sortuta dagoela, merkatura ateratzeko ordua iristen da. Horretarako distribuzioa egin behar da. Distribuzioa enpresaren esku egongo da, eta ez bitartekari baten esku. Honi esker gure zerbitzu garrantzitsuenetariko bat eskaini dezakegu. Webgunearen bitartez erosten dute bezeroek beraien etxeetan froga eta azalpenak jasoko dituzte. Lan hau enpresako langile batek egingo du, banaketa egin duen pertsona berdinak. Enpresako langile bat denez produktuari buruzko aholkuak ere eman ditzazke, eta enpresak transmititu nahi duena transmititu. Dendetara ere egingo da distribuzioa, han produktua saldu ahal izateko. Hau da, kanal zuzen bat izango da.

Bezeroei produktua saltzean, marketing estrategia bat edukitzea oso garrantzitsua da. Horretarako hainbat langile izango ditugu. Webgunea antolatzeaz eta batez ere dendak jartzeaz arduratuko direnak. Adibidez erabili beharreko koloreak, produktuaren kokapena edo dendako musika izan daitezke hartu beharreko erabakietako batzuk.

Bukatzeke, eta garrantzi handia duen jarduera bat, enpresaren administrazioa da. Berezik administrazioarako langile talde bat izango dugu, zeregin asko dituztelako. Enpresako langileak antolatzea adibidez, bakoitzari zeregin bat jartzea. Baita langileak kontratatzea eta ordezkapenak egin behar badira haietaz arduratzea ere. Prozesu guztian zehar sortzen joaten diren gastuak kontrolatzen dituzte, hoiengan artean hornitzaileenak. Hornitzaileekin kontaktuan jartzen dira beraiek. Horrela muntaketa egiteko zati guztiak noiz iritsiko diren,

hau da, sarrerak noiz izango ditugun, jakiten dute. Eta azkenik eskaeraren arabera irteerak noiz eman behar diren.